

PAISAIAREN KONPARAKETA

5. Orain ikusten dugun egoera ikusita, zer etorkizun ikusten diozu nekazaritzari hemendik 50 urtera?

6. Nola eragingo dio nekazaritza aldaketa horrek biodibertsitateari? Eta nekazal biodibertsitateari?

7. Egoera hau guztia ekiditeko, zein urrats eman beharko lirateke?

8. Eta zein urrats emanaz lagundu genezake norbanako bakoitzak egoera on batera heldu ahal izateko?

9. Atera dituzuen ondorio guztiak ikusita, egin itzazue gela osoaren artean zenbait proposamen etorkizun latzari aurre egiteko. Zuen herriko Udalari bidali proposamen horiek.

PAISAIAREN KONPARAKETA

Honako ariketetan gure inguruan azkenengo 50 urteetan lehenengo sektoreak izan duen bilakaera aztertu nahi da. Horretarako, zuen eskura jarri ditugu Azpeitiko herriaren 2 ortoargazki, bata 1954an ateratakoa, eta gaur egungoa bestea. Hauekin batera hiri eremua soilik marraztua duten beste 2 argazki dituzue. Zuek margotu beharko duzue argazkia, baina basoak, larreak, baratzeak eta fruta-arbolak bereizi beharko dituzue, bakoitza dagokion kolorez margotuta.

*Ahal izanez gero, "Google Earth" programa erabil dezakezue eremu hauek ordenagailu bidez margotu ahal izateko



KOLOREAK ETA LANDA MOTA

■ Basoak
 ■ Larreak
 ■ Laboreak
 ■ Baratzeak
 ■ Fruta-arbolak / Zuhaiakak
 ■ Herrigunea

PAISAIAREN KONPARAKETA

Ikusi ahal duzue, oso desberdin murriztu dituzue bi argazkiak.

1. Deskriba itzazu mapa bakoitzean azaldu diren berezitasunak (gune motak, distribuzioa, azalera...) eta nolakoa izan den bilakaera urte hauetan.

2. Landa eremuan, labore tradizionalak aldaketa izugarria jasan du paisaia guztiz aldatuz. Zer dela eta gertatu dira aldaketa hauek?

3. Azken urte hauetan, dugun bizimodua eta ekonomia ereduak kontuan izanda, gure beharrak asetu ahal izateko aldaketa ugari eman izan ditugu, baita nekazaritzan ere. Garai bateko nekazaritza ereduak, nekazaritza estentsiboa (edo ekologikoa) alde batera utzi dugu nekazaritza intentsibora pasatzeko.

NEKAZARITZA ESTENTSIBOA ETA INTENTSIBOA



Nekazaritza estentsiboa



Nekazaritza intentsiboa

a. Bila ezazu informazioa 2 nekazaritza mota hauei buruz, eta beraien arteko desberdintasunak zeintzuk diren idatzi, bakoitzaren alde positibo eta negatiboak bereiziz.

b. Zein eredu da zure ustetan egokiena? Zergatik? Gaur egun daramagun bizimoduarekin bateragarria al da?

PAISAIAREN KONPARAKETA

4. a. Adierazi gurutze baten bitartez nekazaritza mota bakoitzarekin bat datozen ezaugarriak.

	Nekazaritza estentsiboa	Nekazaritza intentsiboa
Espezie exotikoak, transgenikoak	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
Produktio maila handia	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
Heterogeneitatea (heskai biziak, laborantza errotazioa...)	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
Izurriteak	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
Kontsumitzaileei eta naturari begirunea	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
Hazi barietate handia	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
Garaiari garaikoa	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
Kutsadura	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
Tamaina mugatua	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
Eraginkorra lurterako	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
Ongarri kimikoak	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>

b. Biodibertsitate aldetik, aurreko taulako ezaugarriak, eta hauek izan ditzaketen arazo edo onurak kontuan izanda, zein nekazaritza eredu iruditzen zaizu egokiagoa? Arrazoitu erantzuna.